

Berta Zúñiga Cáceres

Honduras

Honduraseko Herri Indigenen eta Elkarte
Popularren Kontseilu Hiritar Orokorren
koordinatzaile nagusia (COPINH)

COPINH Lenca herriko tokiko hainbat elkarteek osatutako erakundea da. Historikoki borroka esparru zabala izan du: herri indigenen eskubideen defentsa, luraren defentsa, lenca herriaren lurraldearen defentsarekin harremana duena, eta baita bestelako bizi proiektu berri bat eraikitzeko ere, sistema kapitalistatik at eta lenca herriaren kosmobisioarekin bat egingo lukeena.



COPINHen sorrerak Ertamerikako borroka armatuetan du bere jatorria. Bake akordioen ondoren, Erdialdeko Amerikako herrialdeetan bultzatzen ari ziren eraldatze prozesu horiekin jarraitu nahi zuten erakunde zibil asko sortu ziren, garai hartako berdintasun eza erabat aldatu nahi zutenak. Borroka honen baitan, La Esperanza hirian, eskualdeko subjektu sozial zehatz batekin lan egiten hasi zen, Lenca herri indigena hain zuzen. Historikoki ahaztutako herria zen, erabat baztertua, eta lur indigenen eskubide kolektiboekin oso kezkatuta zegoena batik bat, izan ere, norbanakoei saltzen ari zitzaizkien lur hauek, orokorrean kanpotarrei gainera.



Hortik aurrera, eta barne prozesu oso bat eman zen arren, 1993. urtean COPINH erakundea formalki sortu zen. Ordutik hona, komunitateak mobilizatzen saiatu da eta dagozkigun eskubideak eskean ibili ez ezik, hauek exijitzen, aldarrikatzen eta behar bezala bete daitezen miatuz.

Lenca herriarentzat, Lurra herri indigenak historikoki bizi eta biziraun duten tokia da, bertan etxebizitzak eraiki dituzte, bertatik elikatu dira eta hura bere osotasunean zaintzen saiatu izan dira beti. Gainontzeko Latinoamerika edota Ertamerikako herri originarioen antzera, lenca herriak naturarekiko harreman askoz estuagoa izan du hirigunetan bizi ohi direnekin alderatuz gero. Guk, gizaki edo komunitate oso gisa, Lurrari lortutako ondasunengatik eskerrak ematea da gure zeremonia esanguratsuenetako bat, edo behintzat zati bat eskaintzea.

2009ko estatu kolpearen ondoren, Lenca herriaren lurrak ez ezik, gainontzeko komunitate indigena guztien lurren emakida masiboa hasi zen. Eskualde honetan proiektu hidroelektrikoei oposizio handia egitea egokitu zaigu, tamaina txikiagoko meatze-proiektu batzuei baita eta energia sortzeko beste proiektu batzuei ere, eolikoa esaterako. Baita zenbait erkidegotan dauden basoen pribatizazioei ere, degradazio eta baso-soiltzen ondorio diren isuriak murrizteko helburu sakonarekin.

Gure kultu, praktikak eta nortasuna bera mehatxupear daude bizi dugun homogeneizazio kulturalen erruz, eta nortasun eta kultura hori guztia apurka-apurka ezabatzen ari den arrazakeria historikoagatik. Bizi ditugun mehatxuak hainbat jatorri ezagunak dituzte, baina esanguratsuenak enpresa pribatuak eta estraktibistak dira eta, noski, ezin dezakegu gobernuaren esku hartzea ahaztu. Herri antolatua gara, borrokalaria espainiarren etortze eta konkista geroztik, nortasuna asko indartu egin duena gure eskubideen alde duintasun osoz tinko borrokatu eta gero.

COPINHek beti aldarrikatu izan du ez zuela lenca herriaren aldeko eskubideen aldeko apustu soila egingo. Izan ere, herrialde osoaren errealitatea aldatu ezean, gure herriaren egoera ez da sekula aldatuko. Horregatik, gure borroka Hondurasen ezarri berri den diktadura honen kontra ere bada: emakume eta herri indigenen eskubideak aldarrikatuz eta herri berri eta libre bat eraikitzearen aldeko apustua sendoa da. Nahiz eta batere erreza ez izan eta bidean zehar oztopo ugari aurkitu, gaur arte erakunde gisa bizirautea lortu dugu.



COPINH 1993an sortu zenetik eta, batez ere, lider fundatzaileen lanaren ondorioz, eta haien artean Berta Caceres kidea izanik, betidanik oso argi izan dugu prozesu libertario bat eraikitzea zela gure nahia. Horrek esan nahi du herriak kanpotik mehatxatzen dituen arerio horietan soilik gure lana ardazteaz gain, haien barne prozesuak mehatxatzen dituen etsaietan ere zentratu behar garela. Askatasun horren alde borrokatzen den herria izan arren, eta naturarekin harreman orekatua ere dugula jakinda, oraindik zapalkuntza ahalbidetzen duen barne mekanismoak ere baditugula onartu behar dugu. Horien artean, esanguratsuena emakumeen aurkako indarkeria dugu, eta baita patriarkatuaren ondorioz emakumeek izan duten parte hartze politiko eskasa ere.

Oso eztabaida gogorra hasi zen orduan. Lehenik eta behin, bizi ditugun indarkeria egoerak agerian uztea pentsatu zen, emakumeen indarkeriaren aurkako kanpainak eginez. Baina, aldi berean, ulertu zen ere gai askoz konplexuagoa zela, sistema patriarkal batean oinarritzen zena, emakumeak libre izateko aukera guztiak zapaltzen dituen menderatze sistema guzti oso bat artikulatuz. COPINHek, bere sorreratik bertatik izan dituen herrien arteko artikulazio guztien ondorioz, borroka feministari, emakume guztien eskubideei eta beste sexu identitate batzuen alde borrokatzeko hautua egin zuen.

Denborak aurrera egin ahala, COPINHek bere burua erakunde antipatriarkal gisa aldarrikatu zuen eta emakume indigenen batzar propioa eratu zen, zapalkuntza prozesu horiek barrutik desagerrarazteko helburuz. Une oso latz eta konplexuak sortu izan ziren taldearen baitan, barne eztabaida hauek zirela eta, eta askok mehatxu gisa hartu zituzten egun horiek, erakundea zatituko zelakoan. Izan ere, gizonezkoen lidergo historikoak ere zalantzan jartzen hasi ziren, eta deseroso agertzen hasiak ziren ere abusu sexualen kasuak aipatzean, tamalez, gizarte osoan eta lenca herriaren baitan oraindik oso presente dauden errealitateak direlako. Antolaketa prozesu batean gaudenez, guretzat oso garrantzitsua da emakumeentzako espazio seguruak izango diren erakundeak sortzea, abusuak, jazarpena edota tratatu txarrik gehiago bizi behar ez izateko.

Gaur, aniztasun handiko emakume batzar bat osatu dugu eta, zenbait kasutan nahi bezala lan egitea lortu ez dugun arren, indarkeria hori antzematea eta lantzea lortu dugu. Salaketak jarri ditugu baita, bertan geure antolaketa prozesuak bideratuz gizartea nolabait eraldatzeko asmoz. COPINHek, gaur egun, emakumeen partaidetza handiagoa du, oro har. Barne hausnarketa guzti horien emaitza emakumeek merezi duten lekua ahalbidetzea izan zen,



baita aniztasun sexuala den komunitate baten eraikuntza ere, nahiz eta askotan ezkutatu egin izan diren Elizak sortutako tabuen ondorioz batez ere. Azken hauek, izan ere, pisu handia dute oraindik ere lenca herriarengan.


Ni ia-ia COPINHn jaio nintzela esango nuke eta, beraz, aspalditik parte hartu dut elkartean. Nire ama, gure kidea den Berta Cáceres, antolatzen diren emakume guztien antzera, seme-alabekin gainean ibiltzen zen bileretan ere. Orduan, nahiz eta gertatzen ari zenaren inguruan arreta handirik ez jarri, eztabaida asko entzuten genituen. Berak eskatu zigun gure Lenca herriaren borrokarekiko axolagabeak ez izatea. Haurrek egiten zuten bezalako ekintzetan parte hartzen genuen: muralak egin, zinema solasaldietan egon, batzarrak egin... apurka-apurka antolatze prozesu hori guztiak barneratzen joan ginen.

Nire amaren erailketaren ondorioz, sarriago elkartzen hasi ginen, batez ere harentzat justizia eskatzeko. Hala ere, bagenekien herri honetan justizia eskatzea erronka oso gogorra izango zela hainbeste pertsona hiltzen dituzten herrialde batean eta, oro har, krimenak isilpean geratzen direlarik. Beraz, COPINHek ere prozesuan laguntzearen aldeko apustua egiten du, justizia ekintzarik handiena hori izan dadin: Bertak hasitako proiektu politiko eta antolatzailearekin jarraitzea.

2017an koordinatzaile nagusi izateko proposatu ninduten. Gaitasun izatea ala ez alde batera utzita, barne krisi prozesu batean sartuta geunden, nire amaren hilketaren ondorio zuzena izan zena. Bera baitzen bururik ezagunena eta COPINHen borrokan lan izugarria egin zuena.

Oso erronka handia suposatu du, baina lidergo eta borroka historiko osoak aurrera eramaten tinko saiatu gara. Egun bizi ditugun testuinguru zail hauetara egokitu behar izan dugu gure lana ildo horri eutsiz, ez bakarrik COPINHen baitan, Hondurasen kasuan ere.

Gauza asko lortu badira ere, gure ardatz nagusienetako bat lenca herriaren existentziaren behar bezalako aitorpen osoa izan da beti. Herrialde honetan, lenca herriaz hitz egitean, espainiar kolonizazioaren aurka borroka egin zuen desagertutako herri soil bat balitz bezala aipatzen da. Lempiraa gudari eta buruzagi indigena bat zen, lurraldea defendatzeko gogor borrokatu zuena. Hau da, oraindik, lortzeke dugun helburu handienetako bat.



Beste bat COPINHek lurra eta lurraldeak babesteko komunitateak batzeko izan duen mobilizazio gaitasuna da. Emakumeentzako espazioak sortzea, ikuspegi propioagoa duen osasun eskola batean prestatutako emakume taldeak garatuta. Instituzionalizatutako osasun sistema guztiz arrazista eta baztertzailea da bere funtsean, eta are gehiago emakume indigenen kasuan, aukera askoz murriztuagoak dituztenak bertan parte hartzeko. Emakumeen subiranotasun ekonomikoarentzako zenbait proiektu ere bultzatu ditugu jada.

Lenca herriaren kasuan, gure kosmobisio eta espiritualitateak, herri gisa asko indartzen gaituztenak halaber, jasandako gaitz guztietatik babesten lagundu izan gaitu. COPINHek, baita ere, beste zenbait erakundeekin elkarlan sareak sortzeko aukera izan du eta baita osotze eta sendotze arloetan zehazki lanetan diharduten emakumeekin ere, orotariko ikuspuntu eta joerak dituztenak. Komunitate indigena zein beltzen eskutik jasotako laguntza guzti horrek asko lagundu izan gaitu gure gorputzak sendotu eta osotzeko, prozesu honen baitan pairatu behar izandakoari berriro ere aurre egiten jarraitu ahal izateko. Honek denak erabat indartu gaitu.

Herrialdea batere ongi ez dagoela esan genezake. Komunitateak gaizki daude, kolektiboak baita... herri benetan konplikatua da gurea. Jakin badakigu guztiz ongi egotea ezinezko ametsa dela, baina bai behintzat egunen batean behin-betiko oreka sozial bat lortzea espero dugu, behar bezala erresistentzia prozesu honetan aurrera jarraitu ahal izateko. Argi eta garbi plazaratu dezakegun ondorio bakarra, nire iritziz, hau da: soilik elkarlan kolektiboarekin egin dezakegu bidea.